


EUSKAL TENIS FEDERAZIOKO

LEHIAKETA ARAUDIA



EUSKAL TENIS FEDERAZIOKO **LEHIAKETEI BURUZKO ARAUDIA**

I. kapitulua.- Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Euskal Tenis Federazioko lehiaketak

Araudi honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, honako hauexek izango dira Euskal Tenis Federazioak antolatutako lehiaketa federatu ofizialak:

- Kimuentzako Euskadiko Txapelketa
- Haurrentzako Euskadiko Txapelketa
- Kadeteentzako Euskadiko Txapelketa
- Juniorrentzako Euskadiko Txapelketa
- Absolutuentzako Euskadiko Txapelketa
- Beteranoentzako Euskadiko Txapelketa: +35, +45 eta +55.
- Kimuentzako Euskadiko Txapelketa taldeka
- Haurrentzako Euskadiko Txapelketa taldeka


Aipatutako lehiaketa guztiak gizon eta emakumeentzako kategorietan garatuko dira.

2. artikulua.- Antolaketa

Euskal Tenis Federazioak antolatuko ditu araudi honetako 1. artikuluan zehaztutako lehiaketak. Dena dela, lehiaketa horiek garatzeko eta, batez ere, ekitaldion antolaketa faktikoa edo materiala gauzatzeko, edozein pertsona edo erakunderen laguntza jaso ahal izango du Euskal Tenis Federazioak.

3. artikulua.- Arauketa

1. artikuluan zehaztutako Euskal Tenis Federazioko lehiaketak arautzeko orduan, honako hauexek hartuko dira kontuan: araudi honetan aurreikusitakoa, garapenerako xedapenetan adierazitakoa (zirkularrak barne) eta euren eskumenen esparruan federazio eta kirol arloko organoek erabakitakoa.



Euskal Tenis Federazioko kudeaketa eta administrazio organoak konponduko ditu interpretazioagatik eta proposatutako suposamendurako xedapenik ez egoteagatik araudi honetako edukiaren inguruan sortu daitezkeen gatazkak. Halakoetan, proposatutako egitateen eta inguruabarren arabera ebazteko orduan, kirol-lehiaketak arautzeko printzipio edo irizpide orokorrak hartuko dira kontuan eta, besterik ezean, ekitatea bera hartuko da irizpidetzat. Agindu honetan aurreikusitakoaren arabera hartutako federazio-erabakien aurkako helegiteak aurkezteko, xedatutakoaren izaeragatik beragatik ustezko helegiteak aurkezteko moduren bat egon beharko da aurreikusita, ezarri beharreko indarreko arauzko xedapenetan adierazitakoa kontuan hartuta.

Euskal Tenis Federazioko ekitaldi federatu ofizialak Euskadiko eskola-kirola arautzen duten arauzko xedapenen eraginpeko kategorietan antolatu, garatu eta arautu egiten direnean, xedapen horiek errespetatu beharko dira beti.


4. artikulua.- Lehiaketen urteko egutegia

Euskal Tenis Federazioak lehiaketen urteko egutegia onartuko du, ezarri beharreko indarreko arauzko xedapenetan aurreikusitakoa eta, batez ere, bere estatutuetan adierazitakoa kontuan hartuta.

Oro har, lehiaketen urteko egutegia onartzean, araudi honetako 1. artikuluan adierazitako ekitaldiak noiz eta non garatuko diren zehaztu beharko da. Edonola ere, honako suposamendu hauetan, behin-behinean eta salbuespenez aldatu edo ostean zehaztu ahal izango da, artikulua honetan aurreikusitakoa kontuan hartuta:

- a) Osteko zehaztapena: urteko egutegia onartzeko orduan, ekitaldi horiek noiz edo non egingo diren zehazterik ez dagoenean, erabakia eragozten duten inguruabar objektiboak egoteagatik.
- b) Aldaketa: egun edo leku zehatza ezarri arren, berri bat zehaztu behar denean, aldaketa eragiten duten inguruabar eratorriak egoteagatik.

Salbuespenez, artikulua honetako aurreko idatz-zatian aurreikusitako terminoetan, Euskal Tenis Federazioko Zuzendaritza Batzordeak ekitaldiok noiz eta non garatuko diren zehaztu ahal izango du, Batzar Nagusiak lehiaketen urteko egutegia onartzeko bileran ezarri ditzakeen behin-behineko mugak kontuan hartuta.



5. artikulua.- Kategoriak

Jokalari bakoitzaren kategoria lizentzian bertan indarreko denboraldirako agertzen dena izango da.

Euren adina edozein dela ere, edozein kategoriatako kirolariek parte hartu ahal izango dute absolutuen kategoriako lehiaketetan, eta honako hauxe izango da muga bakarra: eskola-kirola arautzeko indarreko arauzko xedapenak errespetatzea eta kasuan kasuko baimenak eta eskuespenak lortzea.

6. artikulua.- Partaidetza

Honako eskakizun hauek bete beharko dira, Euskal Tenis Federazioko ekitaldi federatu ofizialetan parte hartzeko eta titulu ofiziala lortu ahal izateko:

- a) Euskal Tenis Federazioak egindako indarreko federazio-lizentzia edukitzea.
- b) Euskal Tenis Federazioko sailkapenean agertzea.
- c) Azken 24 hilabeteetan Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalerrian edo udalerrietan auzotasun administrazio etengabea edukitzea.


Araudi honetako 1. artikuluan aurreikusitako edozein ekitaldi garatzeko, 8 parte-hartzaile egon beharko dira gutxienez.

Araudi honetako 1. artikuluan aurreikusitako taldekako lehiaketetan, Euskal Tenis Federaziora atxikitako erakundeek baino ez dute parte hartzerik izango.

7. artikulua.- Izena emateko

Kasuan kasuko zirkularren bitartez, federatutako ekitaldi ofizialetan izena emateko epealdia zein den zehaztuko du Euskal Tenis Federazioak.

Izena emateko eskabideak Euskal Tenis Federazioan bertan aurkeztuko dira, kategoria bakoitzerako zehaztutako eredu eta epeen arabera. Ez



da epez kanpo edo erakunde antolatzaileak adierazitakoa ez beste eredu batean aurkeztutako eskabiderik onartuko.

8. artikulua.- Lehiaketa-sistema

Hona hemen Euskal Tenis Federazioko txapelketa federatu ofizialetako lehiaketa-sistema:

a) Kimu, haur, kadete eta juniorren kategorietan, fase bikoitza jokatu da:


- Aurretiazko fasea: hiru lurralde historikoetan (Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan) egindako lurralde-faseetan sailkatuta ez dauden tenislariak parte hartu ahal izango dute.
- Azken fasea: 16 tenislariak parte hartu ahal izango dute:
 - 12 tenislari, hau da, hiru lurralde historikoetan (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban) egindako lurralde-faseetan sailkatutako 4na jokalaria.
 - Aurretiazko fasean sailkatutako lehen 4 tenislariak.

b) Absolutuen eta beteranoen kategorietan, fase bakarra jokatu da.

Lehiaketa-sistema egitean, Espainiako Tenis Federazioan unean-unean indarrean dagoen arautegian aurreikusitakoa hartuko da kontuan, eta, hain zuzen ere, ekitaldietako jokalaria-taldeen arloan ezarriko da.

Kimuen eta haurren taldekako txapelketetarako lehiaketa-sistema Euskal Tenis Federazioak kategoriatan horietako taldeen lehiaketetarako ezarritako araudietako aurreikuspenetan azaldutakoa izango da (Toño Paez eta Joan Compta garaikurra).

Euskadiko tenis-txapelketetan, lehiaketaren arloan sortzen diren gorabehera guztiak epaileak berak ebatziko ditu, eta, horretarako, Euskal Tenis Federazioan unean-unean indarrean dagoen araudia ezarriko du, kasuan kasuko arau-igorpenaren bidez ezarri beharrekoa da-eta.



9. artikulua.- Epailea

Kategoria bakoitzean, Euskadiko Tenis Txapelketako epailea ekitaldiko lehiaketa-agintari gorena izango da.

Kategoria bakoitzean, Euskal Tenis Federazioak berak erabakiko du nor izango den Euskadiko Tenis Txapelketako epailea.

Epaileak Euskadiko Tenis Txapelketan hartutako erabakien aurkako helegiteak federazioko (edo, hala badagokio, administrazioko) organoetan baino ezin izango dira aurkeztu, lehiaketa-organo horrek xedatutakoaren izaerak halaxe baimentzen duenean, ezarri beharreko indarreko arauzko xedapenak kontuan hartuta.

10. artikulua.- Arau teknikoak edo jokoak garatzekoak

Euskadiko Tenis Txapelketako partida guztiak garatzen direnean, Espainiako Tenis Federazioan indarrean dauden arauzko joko-xedapenetan aurreikusitakoa hartuko da kontuan.


11. artikulua.- Euskal Tenis Federazioko sailkapena

Euskal Tenis Federazioko sailkapena egongo da, eta Zuzendaritza Batzordeak onartutako eta Batzar Nagusiak berretsitako arauen eta irizpideen arabera egingo da.

Xedapen gehigarri bakarra

Araudi honen arabera araututako lehiaketetan parte hartzen duten pertsonen edo erakundeen gaineko zehapen-ahalmenaren erabilera zehazteko orduan, xedapen gehigarri honetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

Bertako zehapen-organoen bitartez, Euskal Tenis Federazioak atxikitako pertsonen edo erakundeen gaineko zehapen-ahalmena erabiliko du, kirol-arau orokorrak edo jokoaren arauak hausten direnean eta araudi honetako 1. artikuluan zehaztutako lehiaketan garapen egokia urratu, eragotzi edo asaldatzen dutenean.



Azken xedapenak

Lehenengoa.- Indarrean sartzea.

Euskal Tenis Federazioko lehiaketei buruzko araudi hau erakundeko Batzar Nagusiak onartzen duenean, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak onarpen administratiboa ematen duenean eta Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen denean sartuko da indarrean.

Bigarrena.- Hizkuntza.

Lehiaketei buruzko araudi hau gaztelaniaz eta euskaraz aurkeztuko da. Hizkuntza batean eta bestean adierazitakoa bat ez badator, gaztelaniaz aurreikusitakoa hartuko da kontuan.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Euskal Tenis Federazioko lehiaketei buruzko araudi honek indarrrik gabe utziko ditu indarrean sartu arte araututako edo ezarritako beste xedapen, aztura, ohitura eta erabaki batzuk.

2009ko otsailaren 12an.

Jesús Paredes jauna
ETFko idazkaria

Igor del Busto jaunaren oniritzia
ETFko presidentea